


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,5 jaitsi dira 2024ko abuztuan

Urte artean, 2024ko abuztua 2023koarekin alderatuta, prezioen igoera % 2,5ekoa izan da

2024ko abuztuan, Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,5 jaitsi zen, aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. 2023ko hil beraren aldean, kostuak % 2,5 igo dira.

Eraikingintzako kostuak % 0,5 jaitsi dira eta Obra Zibilekoak % 0,6. 2023ko abuztuaren aldean, berriz, prezioak % 2,5 igo dira Eraikingintzan eta % 2,6 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte- arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren aldean (2024ko uztaila), **lehengaien** kostuak % 0,6 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, konstante mantendu dira. Urte arteko datuei dagokionez, lehengaien kostua % 1,7 igo da, eta eskulanarena % 5,4.

Lehengaien kostua hil artean % 0,6 jaitsi da Eraikingintzan eta % 0,8 Obra Zibilean. Urte arteko bilakaeran, Eraikingintzako lehengaien kostuak % 1,7 igo dira eta Obra Zibilekoak % 1,8.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abuztua 2024

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	128,9	-0,5	2,5
Eraikinak	128,4	-0,5	2,5
Obra zibila	131,3	-0,6	2,6
Lehengaiak	130,0	-0,6	1,7
Eraikinak	129,3	-0,6	1,7
Obra zibila	133,1	-0,8	1,8
Laneskua	125,5	0,0	5,4

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Irailaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioak, 2024ko abuztuaren 2023ko abuztuaren aldean, honako azpisektore hauetan gehitu dira gehien: *Mineral ez-metalikoak* (% 9,8), *Altzarigintza* (% 3,4) eta *Material elektrikoa* (% 3,0). Aldiz, sektorean gehien gutxitu diren lehengaien prezioak hurrengo azpisektoreetan izan dira: *Energia elektrikoa eta gasa* (-% 24,0), *Petrolioaren fintzea* (-% 17,3) eta *Ez-metalezko mineralen industria* (-% 8,6).

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Abuztua 2024

	m / m-12
Ezmetalezko meak	9,8
Zuraren eta korbatoaren industria	-3,0
Petrolioaren fintzea	-17,3
Industria kimikoa	0,8
Kautxua eta plastikoa	0,7
Produktu mineral ez-metalezkoak	-8,6
Metalgintza	-5,5
Metalezko artikulatuak	1,1
Material elektronikoa	1,5
Material elektrikoa	3,0
Makineriaren fabrikazioa	0,8
Altzarigintza	3,4
Energia elektrikoa eta gasa	-24,0

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Irailaren 25a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62